

GASTROTEK 4.0

Eguneroko bizitzan ez zara ondo moldatzen teknologiarekin? Sukaldaritza osasuntsu bat ikasi nahi duzu? Eman izena Gastrotek 4.0 proiektuan!" Teknologia eta sukaldaritza uztartzen duen tailerra. Teknologia hastapen mailan emango da, ezagutza gutxi edo oso gutxi dutenentzat.

Tramitatzailea: Kultura.

Hartzaileak: Helduentzat (18 urtetik gora).

- **30€** (Eibarren erroldatuak).
- **50€** (Eibartik kanpokoak).

Ikastaroaren ordainketa: Matrikula ordainketa bakar batean kobratuko da, errezerboa helbideratuta.

Eskaera egiteko tokia:

- **Elektronikoki**, udal webgunetik: www.eibar.eus
Tramitea elektronikoki egiteko ziurtagiri digital bat (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.) edukitzea beharrezkoa da.
- **Presentzialki**, PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa.

Nork emango du: e-kasten.

Non: Portalean, batzartokian eta sukaldean.

Datak: otsailak 11, 13, 18, 20, 25 eta 27.

Ordutegiak:

17:00etatik 20:00etara.

Ikastaroak beste 9 ordu On Line egiteko ditu.

Ikasle kopurua: gutxienez 7 ikasle ikastaroa burutzeko eta gehienez 15 ikasle.

Ikastaroaren hizkuntza: gazteleraz.

Eskaera egiteko epea: urtarrilaren 27tik otsailaren 5era.

Ikastaroa irauten duen 3 asteetan ordenagailu portatil bat maileguan utziko zaio ikasle bakoitzari.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Ikastaroaren matrikula orria behar bezala beteta (PEGORAn eta udal web orrian, <https://www.eibar.eus/eu/tramiteak/ikastaroak-lehiaketak-sariketak> eskuragarri).
- Legezko ordezkapenaren kasuan, legezko ordezkariaren NANA edo balio bereko dokumentua eta ordezkapena dokumentu bidez egiaztatua. Egiaztapen hori, zuzenbidean baliozkotzat har daitekeen edozein bitartekoren bidez egin daiteke (notario-ahalordeak, eskriturak...).

Matrikulazioa presentzialki egiten bada, nortasun agiri nazionala aurkeztu beharko da emandako datuak egiaztatzeko.

Kudeaketa arauak:

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxienerako ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da (www.eibar.eus), **2020ko otsailaren 7an**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxienerako ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da**. Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **otsailaren 7an 10:00etan**. Zozketa era honetan egingo da:

- Zozketa egin aurretik ikastarorako izena eman duten pertsona guztiakin zerrenda bat egiten da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio.
- Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zenbaki bakar bat ateratzen da.
- Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horretatik hasita elkarren hurreneko ondoren datozenak izango dira, plaza guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren web-gunean (www.eibar.eus), egongo da **otsailaren 7an, 12:00etatik** aurrera. Zerrenda hori argitara ematen den unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

Informazio gehiago: 943 708 435 telefonoan

